

## AMA BIRJIÑAREN EDERTASUNAREN GAÑEAN,

LUIS ETA JOSECHO-REN IZKETA EDO JOLASA.

JOSE. Luis, nere biyotzeko  
Aiskire maitia:  
¡Ze ederra dan ez dakik  
Birjiña Maria!..  
Etziok añ ederrik  
Urre ta lorerik,  
Ez gizon ta ez aingeru  
Beraren parerik.  
Aren animan eta  
Aren gorputzean  
Edertasuna zio  
Bere jargoiyean.

LUIS. ¿Ori besterik ez dek  
Esatenasita?  
¿Zerren esan ez dirak  
Dala chit pollita?  
Lorategi danetan  
Ez dala arrosarik  
Bere ezpañcho gorriyen  
Daukan ichurarik?  
Bere zuri-gorriya  
Duen clabeliñik  
Ez dala iñun arkitzen  
Eder eta piñik:  
Ikustean añ eder

Masall argigilla,  
Zeruba datorrela  
Edertasun-billa!..  
Ez dala izar, euzkirik  
Zeru urdiñetan,  
Argi biziya nola  
Bere begiyetan! ...  
Marfill zuriya baño  
Zuriyago dala  
Bere lepo biribill  
Ertzaren egala.  
Bere eskubak dirala  
Fiñ ta labañduak  
Graziya dariyela  
Jaunak edertuak.  
Ikusirikan bere  
Oñak erabiltzen,  
Dakitela iturriyak  
Pill-pill koskabilten;  
Goizeko egunsentiyak  
Argiyak orrazten  
Beraren illakean  
Dubela ikasten;  
Bere ille puñta bat  
Dala (bada dago)

Pichi guztiyak baño  
 Guztiz pollitago.  
 Edertasuna bera  
 Pesta egunetan  
 Begira dabillega  
 Iñpillu orretan.

JOSE. Baña, Luis, aditu zak,  
 Nik esan nubena  
 Etzala esan biarzan  
 Laurdenen laurdena.  
 Nik bazekiyat ondo  
 Ez dala inhorchorik  
 Milloi leguaz ere  
 Bere parekorik....  
 Ez dala izan ta izango  
 Munduban andrerik  
 Edertasunean ur  
 Emango dionik;  
 Euzkia dagoala  
 Beraren aurrian,  
 Odey beltz illundu bat  
 Gabaren erdian.  
 Lotsatzen diradela  
 Izar argidunak  
 Bere koroy ondoan  
 Egoten illunak.  
 Ai dirala zerutar  
 Danen alegiñak  
 Biltzen bere edertasun  
 Baten zipristiñak.  
 Bere itz baten soñu

Izpi-bat aiturik,  
 Gauza danak zirala  
 Geldi zoraturik.  
 Berak «bai» esatean,  
 Jaungoikua-bera  
 Jechi zala zerutik  
 Gizon izatera.  
 Milla mingañ baneuzka  
 Itzak iñurtzeko,  
 Utsa nituzkeala  
 Bera alabatzeko.

LUIS. Arrazoy daukakela  
 Diyat-ezagutzen...

JOSE. ¡Baña ni arritzen nauk  
 Nola ez geran sutzen!...  
 Nola kiñkaltze ez geran  
 Maitatzen Mariya,  
 Alde guztiyetatik  
 Añ maitagarriya!...

LUIS. Sutu dezagun biyok  
 Bere amorea...

JOSE. ¡O! noiz izango ote da  
 Bera ikustea!!!

LUIS. Ori bagendukechik,  
 Akabo munduba;...  
 Ori izango giñekik  
 Gerontzat zeruba.

JOSE. Ala dek. ¡Oriñen dek,  
 On guztiyen pillal...  
 ¡Arren, berak deigula!...

LUIS. Ala izan dedilla....

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.